## Azaroak 25: Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

**(Día internacional contra la violencia ejercida hacia las mujeres).**



Aurten azaroaren 25ean, Euskal Herriko eta munduko kaleak beteko dira. Euskal Herriko Mugimendu Feministak manifestazioak antolatu ditu Euskal Herriko hiriburuetan, eta, Gasteizen, 19:00etan abiatuko da manifestazioa Andra Maria Zuriaren enparantzatik.
Ikasle Abertzaleek ere deialdiak egin dituzte Gasteizen: Goizeko 11:00etan ikastetxe batzuetan.
Hala Bedi irratian aurreko ikasturteko bideoa berreskuratu dute. Permormance hori egiteko, Goianeko Auzodance Taldea, Koldo Mitxelenako Dantza Garaikide Taldea, Gasteizko Plataforma Feminista eta HalaBideo – Hala Bedi – elkarlanean aritu ziren (dira) orduan.

**HIZTEGIA:**

1- INDARKERIA: biolentzia.
2- AURKA: kontra.
3- ANTOLATU: organizar.
4- HIRIBURU: (HIRI+BURU) capital.
5- ABIATU: ponerse en marcha.
6- DEIALDI: (deitu+aldi) llamamiento/convocatoria.
7- BERRESKURATU: (berriro+esku+ra+tu) recuperar.
8- GARAIKIDE: coetáneo/contemporáneo.
9- ELKARLANEAN: (ELKARREKIN+LANEAN) en colaboración.
10- ARITU: estar en actividad/ocuparse.

**ARIKETA:**
Esan hurrengo baieztapenak EGIA edo GEZURRA diren.

1- Gobernuak antolatu ditu manifestazioak. E/G
2- Manifestazioak hiri guztietan izango dira. E/G
3- Osakidetzak ere deialdiak egin ditu. E/G
4- Hala Bedi irratian iazko bideoa berreskuratu dute. E/G
5- Iazko performance talde batek egin zuen. E/G

ikagasteiz